



Alarma! Zorriak!



1 Jakinarazi lagunei, familiakoei eta ikastetxekoei


Arduraz jokatu.

Gerta litekeen epidemia gelditzeko modurik onena, besteak lehenbailehen jakinarren ganean jartzea da.



2 Egin zorriak kentzeko berariazkoa den tratamendua


Aukera ezazu zorrien aurkako produktu on bat, irakurri erabilera-orria eta bertan adierazitako tratamenduari buruzko argibideak zehatz-mehatz jarraitu.



3 Froga ezazu tratamenduaren emaitza orrazi xehe bat erabiliz

Tratamendua bukatu ondoren, arrakastatsua izan dela ziurtatu behar da.

Horretarako onena, hortz meheak dituen orrazi xehe bat erabiltzea da, hilik dauden zorriak eta bartzak kentzea errazten baitu.



4 Garbitu arropa gutxienez 60°C-tan

60°C-tan zorriak eta bartzak hiltzen dira. Arropa eta jostailuak tenperatura horretan garbituz gero, desinfektatuko dira.




5 Gorde itzazu gainontzeko gauzak plastikozko poltsa batean

Kutsatutako ilearekin kontaktuan egon diren gauzak 60°C-tan garbitu ezin badira, plastikozko poltsa batean gorde behar dira, gutxienez 15 egunez. Zorriak ezin dira hainbeste denbora bizi jan gabe!



6 Errepikatu tratamendua 7 egunen buruan

Lehenengo tratamenduaren ostean arrautzarik geratu ez dela ziur egoteko, 7 egunen buruan berriro egitea merezi du. Aurrekoan arrautzaren bat geratu bada, denbora horretan bere bizi-zikloa burutu egin da eta zorri gaztetxoak dagoeneko atera dira oskoletik.



7 Aztertu emaitza

Hildako zorririk geratzen ote den begiratu behar da, hortz meheak dituen orrazi xehea erabiliz. **Seguru asko, bigarren tratamendua egin ondoren pedikulosia erabat desagertuko da.** Ia izurrite guztiak produktu egoki bat behin aplikaturik desagertu egiten dira, tratamendua egiten den bitartean bizkarroiekin kontaktu berririk egon ez bada behintzat.

